



1881

Victor Hugo
Guernesey-en
bere familiarekin
© Harlinge
Viollet.

Victor Hugoren zahartzaroa, 1871an hildako bere Charles semearen bi seme alabek alaitu zuten. Georges 1868ko abuztuaren 16an jaio zen, Hugoren emaztearen heriotza baino urte batzuk lehenago, eta Jeanne 1869ko irailaren 29an.



Victor Hugo bere Georges eta Jeanne bilobekin. A. Melandrik egina, 1881. Bilduma Partikularra © J.-L. Charmet.

Aitona izatearen artea, VI, 6, 1876ko urriak 21.

Johana ogi hutsean zigortua zen

15

Aitonaren gehiegizko bihotzberatasuna, familia guztiak gaitzesten zuena, bizitza politikoarekin konparatzerakoan argitu eta justifikatzen da: “proskribatu”, “prebarikazio”, “Nire hirian”, “gizartearen osasuna”, etab. Horrela, oldarkortasunik gabe, Jeanne aitona insumisoaren irudi bilakatzen da.

“Johana ogi hutsean zigortua zen gela ilunean, Krimenen bat zela kausa, eta, behar ez bezala, Zigortua ikustera joan nintzen ene hitza janez, Eta erreximenta pota bat pasa nion isilean Legez bestera. Nire herrian gizartearen Osasunaren euskarri direnak oro Asaldatu egin ziren, eta Johanak apalki: —Ez dut hatza sudurrera berriz eramanen; Pitxitxik ez dit gehiago eginen harramazka. Baina besteek ostera: —Haur honek ezagutzen zaitu; Badaki zenbateraino zaren ahul eta axolagabea. Haserretzen garenean barrezka zaitu ikusten. Horrela ez dago atarramenturik. Ordena Hausten duzu aldiro; autoritatea laxo uzten duzu; Araurik ez. Ez dago haurra lotuko duenik ezer. Dena hondatzen duzu—. Burua makurtu nuen, Esanez: —Ez daukat horri zer erantzunik, Oker nabil. Bai, horrelako eskuzabaltasunaz Eraman izan dira herriak hondamendira. Itxi nazazue ogi hutsean. —Merezia duzu, egia da, Itxiko zaitugu—. Johanak, ume gozoen larderiaz Beteak zeuden begi ikusgarri haiek jasoz Honela esan zidan ahapetik zoko ilunean: —Lasai, nik erreximenta eramanen dizut. Johana ogi hutsean zigortua zen...”